

KLIMA BABESLEKUEN ETA ESPAZIO PUBLIKOEN BIRNATURALIZAZIOAREN MOZIOA

Gure Autonomia Erkidegoak, Euskadik, egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egin behar die eta erronka horietako handiena klima-aldaketa da, eragin globala eta handiena duelako.

Klima-aldaketak hainbat inpaktu eragin ditu gure planetan, eta bero-boladak gero eta gogorragoak eta ohikoagoak eragiten dituen ondorio kezagarri ugarietako bat da.

Uda honetan, gure lurraldea astindu duten bero-bolada gogorren lekuko izan gara, eta ezin dugu ahaztu muturreko gertaera horiek klima-aldaketarekin lotuta daudela.

Zientzialariek hamarkadak daramatzate klima-aldaketan fokua jartzen eta klima-aldaketak gure egunerokoan eragiten dituen inpaktuen maiztasuna eta eraginean arreta jartzen.

Horren adibide garbia da Euskadik, azken bero-bolada horretan, 1981ean baino bero-erregistro historiko handiagoa izan zuela, eta abuztu erdialdean inoizko egunik beroena izan genuen: 45 gradu inguruko tenperaturak erregistratu ziren Euskadiko hainbat tokitan.

Euskadi izan da tenperatura altuengatik alerta gorria ezarri duen autonomia-erkidego bakarra, eta aurreikuspenak aise gainditu dira.

Bizkaian, 43,7 gradu Derion, Galdakaon, 43 gradu. Araban, 44,6 gradu Laudion, 42,2 Amurrion, 40,6 Zanbranan eta 40,4 gradu Gasteizen.

Era berean, Gipuzkoan, udalerrri gehienak ez dira 40 gradura iritsi, Elgoibar, Arrasate eta Beasain izan ezik, horiek gainditu egin baitituzte.

Temperatura horiek direla eta, Euskadin 48 pertsonari eman zaie arreta tenperatura altuengatik (30 pertsona Bizkaian, 14 Araban eta 4 Gipuzkoan).

Segidako bero-boladek deigarriak izan behar dira gure lurraldean eta udalerrietan klima-aldaketara egokitzeko neurriak abian jartzeko, gure biodibertsitatea ezagutzen dugun moduan zaindu eta kontserbatzeko, gure herritarren eta gure ekonomiaren osasuna zaindu eta babesteko.

Erronka handia izateaz gain, klima-aldaketaren aurkako borroka eta horretara egokitzeak udalerrri erresiliente eta osasungarriak sortzeko aukera gisa balio behar digute.

Horregatik guztiagatik, Azkoitiko udalari eskatzen zaio

- 1- Udalerriko azpiegitura berdeari buruzko azterlan bat egitea eta udalerriko gune grisenetan birnaturalizazioa sustatzea.
- 2- Temperatura optimoa bermatuko duten eta bero-boladen garaian aterpe klimatiko gisa erabil daitezkeen kanpoko zein barruko espazioak kokatzea.
- 3- Herri berdatzea sustatzea, zuhaitzik edo eguzki-babesik ez dagoen lekuetan eta eremu gris gehiegi dauden lekuetan, klima-aldaketara eta gure herritarren osasuna babestera egokitzeko neurri gisa.
- 4- Eskola-jolastoakiak leku inklusiboagoak, jasangarriagoak eta naturalizatuago bihurtzeko eraldaketa balioestea.